

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

EAEko ekonomiak urte arteko hazkunde tasa garrantzitsua lortu zuen 2006. urtean ere, Eustatek %4,2an estimatu duena. Emaitza hori azken sei urteetako handiena da eta azken ekitaldian izan duen bizkortzeko joerari eutsi diola adierazten du. Aurreko urteetan ere gertatu zen bezala, 2006an EAEko ekonomiaren barne produktu gordina inguruneko ekonomia baino gehiago areagotu zen. Hala ere, herrialde horiek nabarmen bizkortu zituzten beren aldakuntza tasak. Izan ere, Espainiako ekonomia %3,8 hazi zen eta Europar Batasuna, oro har, %2,9. Dena dela, zenbateko guzti horiek munduko ekonomiaren hazkunde tasaren azpian daude, azken hau %5aren zertxobait gainetik kokatu baitzen.

BARNE PRODUKTU GORDINA 1. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak


	2005	2006	2005		2006			
			III	IV	I	II	III	IV
Munduko ekonomia	4,9	5,2	4,8	4,9	5,3	5,3	5,0	5,2
Europar Batasuna 25	1,7	2,9	1,9	2,0	2,5	3,0	3,0	3,4
- EAE	3,9	4,2	4,0	4,3	4,4	4,2	4,2	4,1
- Espainia	3,5	3,8	3,6	3,6	3,7	3,8	3,8	4,0
- Alemania	0,9	2,5	1,5	1,7	1,9	2,8	3,1	3,7
- Frantzia	1,2	2,2	1,4	0,9	1,3	2,5	1,8	2,2
- Erresuma Batua	1,9	2,8	1,8	1,9	2,4	2,7	2,8	2,9
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	3,2	3,4	3,4	3,1	3,7	3,5	3,0	3,1
Japonia	1,9	2,7	2,9	4,1	2,7	2,2	1,5	2,3
Txina	9,9	10,5	9,4	9,9	10,2	11,3	10,4	10,4
India	8,3	8,7	8,0	7,6	9,3	8,9	9,2	8,6

Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.
Iturria: NDF, The Economist, Eustat eta Eurostat.

Oro har, munduko ekonomiak aurreko urtean baino portaera hedakorragoa izan zuen 2006. urtean, 2004an lortutako hazkunde tasara hurbilduz, hori izan baitzen gutxienez azken hamar urtean inoizko hazkunderik altuena. Hori guztia petrolioaren garestitzeak ekonomia errealean bere eragina utziko zuen inflazioa sortzeko mehatxua egiten zuen une batean gertatu zen. Hain zuzen ere, lehengai horren prezioa 54 dolarretan zegoen 2005. urtean eta 65 dolarretara igo zen 2006ko batez bestean. Beraz, %70 garestitu zen bi urteko epe laburrean. Inflazioa areagotzeko arriskuak eta garatutako ekonomien bilakaera hedakorrak banku zentralak bultzatu zituzten erreferentziako interes tasak igotzera, zenbait kasutan igoera nabarmenak izan zirelarik, hala nola Erreserba Federalak zenbait alditan erabaki zituenak. Hala eta guztiz ere, neurri horiek ez dute, oraingoz, kontsumoa edo inbertsioa galgatu.

Brent petrolioaren bilakaera


1. irudia



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Euroaren eta dolarren arteko truke tasa

2. irudia



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

EAEko ekonomiaren zorionerako, munduko hazkundearen bizkortzea EAEko produktuak erosten dituzten merkatuetan ere gauzatu da. Izan ere, Europar Batasunak %2,9 areagotu zuen bere barne produktu gordina, lehenago ere adierazi denez, aurreko urteko tasa puntu luze batean gaituz eta azken urteetako mailarik altuena lortuz. Bizkortze horretan erabakigarria izan da Alemaniaren susperraldia, 2005ean %0,9 hazi bazen ere, 2006ean %2,5eko gehikuntza tasa eskuratu zuelako. Europan pisu handia duten beste herrialde batzuek ere, hala nola Frantziak, Italiak edo Espainiak, 2005eko emaitzak hobetu zituzten. Orobat, munduko panoraman interes gune garrantzitsu zenbaitek ere, esate baterako AEBek, Japoniak, Txinak eta Indiak, munduko barne produktu gordina gehitzen lagundu zuten, herrialde guzti horiek beren hazkunde erritmoa areagotu zutelako.

Analisisa EAEko ekonomian fokatzen bada, azpimarratu behar da, eskaintzaren ikuspegitik, eraikuntzak oraindik erakusten duen sendotasuna (%5,1), 2005eko gehikuntza tasa bi hamarretan baino ez baita gutxitu. Beraz, badirudi interes tasen igoerak eta hipoteka maileguren kuoten garestitzeak ez dutela kaltetu sektore horren jarduera. Bilakaera erritmo horretatik hurbil kokatu zen industriaren hazkundera (%4,8), ekipamendurako ondasunen bultzadari esker, bai EAEko ekonomian bai beraren bezeroen herrialdeetan garatzen ari diren inbertsio prozesuak lagunduta. Beste aldetik, zerbitzuek (%3,5) ia bere horretan mantendu zuten aurreko urtean erakutsitako bizitasuna, merkaturatzen diren zerbitzuek bizi duten une gozoari esker. Aurreko guztiaren ondorioz, balio erantsia, oro har, %4,0 gehitu zen, 2005eko emaitza bi hamarretan gaituz. Azkenik, ekoizpenaren gaineko zergen diru bilketa ia %6 gehitu zen.

Eskariaren ikuspegitik, adierazi behar da EAEko ekonomiak 2006. urtean izan duen bizkor-
tzearen zati handi bat kanpo eskariaren portaera ez hain negatiboaren ondorioa izan dela. Hain
zuzen ere, kanpo saldoak barne produktu gordinaren hazkundeari egin zion ekarpena berriro
murriztu zen urte horretan eta bost hamarrenetara mugatu zen. Helburu merkatuen susperral-
diak eta horrek EAEko esportazioei eman dien bultzadak azaltzen dute kanpo saldoaren ho-
bekuntza. Beraz, beste urrats bat eman da merkataritza saldoa orekatzeko, bereziki zaila den
une batean, zeren euroaren sendotasunak ez baitu errazten salmentak egitea eta globalizazioak
lan kostuetan abantaila garrantzitsuak dituzten herrialdeekin lehiatzea areagotzen baitu.

BPGren hazkundea hiruhilabeteka


3. irudia



Iturria: Eustat.

BPGren hazkundeari eginiko ekarpenak

4. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Barne eskariari dagokionez, 2006. urtean aurreko urteko batez besteko balioak berriro lortu
ziren. Hain zuzen ere, kontsumo pribatua %4,1 hazi zen eta kapital eraketa gordina, berriz,
%6,3. Aldaketa bakarrak kontsumo publikoan (%2,9) hauteman ziren, 2005. urtean baino zer-
txobait gehiago hazi zelako.

Analisia hiruhilabeteen bilakaeran zehaztuta, adierazi behar da EAEko ekonomiak urteko le-
hen hiruhilekoan lortu zuela zikloaren gehieneko balioa. Harez geroztik oso leun moteltzeko
joera hartu zuen, hiruhileko batetik hurrengora hamarren bat gutxiago haziz. Zehazkiago adie-
razita, urte hasieran aldakuntza tasa %4,4 izan zen, baina urteko azken laurdenean %4,1era
mugatu zen. Bilakaera hau ez dator bat Espainiako ekonomiak izan duenarekin, hiruhilabetez
hiruhilabete gero eta gehiago hazi baita.

Hala ere, taula makroekonomikoaren atal nagusiak aztertzen direnean, EAEko motelaldia ez dela horren larria izan agerian gelditzen da. Izan ere, eskaintzaren aldetik, hazkundera txikiagoa izatearen arrazoi bakarra zerga garbien moteltzea izan da, aurreko epeetan oso maila altuak jaso baitzituzten eta orain ekonomia errearen hazkundera tasetara gehiago hurbildu baitira. Aitzitik, balio erantsia egonkor mantendu zen %4an ia urte osoan zehar. Era berean, hala kapital eraketa gordinak nola kontsumo publikoak ia ez zuten aldaketarik izan urte osoan eta kontsumo pribatua izan zen barne produktu gordinaren apaltzea eragin zuen aldagai bakarra. Kontsumo pribatua gutxiago hazteko arrazoi bat baino gehiago dago eta arrazoi horiek beharbada lotuta daude interes tasen igoerarekin, zorpetzeko erabakiak mugatzen dituelako. Edozein modutan, kontsumo pribatuaren hazkundera gero eta hurbilago dago familiek gastatzeko duten errenta erabilgarrietatik, aldagai hau enpleguaren eta soldata errearen gehikuntza erritmoak baldintzatzen baitu.

Aipamen berezia merezi du kanpo saldoaren bilakaera, barne produktu gordinaren hazkundera egiten dion ekarpen negatiboa murriztu zuelako, nahiz eta ekarpen hori bost hamarrenean egonkortu zen. Helburu merkatu nagusien susperraldiak EAEko esportazioak areagotu zituen urteko bigarren erdian, azken sei urteko erritmorik altuenak lortu baitzituzten, termino errealean %8ko urte arteko aldakuntza tasa gaindituz. AEB eta Amerika Latinoa bezalako lurraldeetan merkatu kuota irabazi bada ere, EAEko esportazio guztietatik bi herenak baino gehiago Europar Batasunera zuzentzen dira oraindik eta, dagoeneko azaldu denez, ekonomia eremu honek nabarmen areagotu zuen bere hazkundera. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunen eta berauek ekoizteko behar diren bitarteko ondasunen artean dagoen lotura zuzenak azken hauen inportazioa areagotu zuen, inportazio guztien hazkundera ere maila altuetara eramanez (%8,7).

2006. urteko balantzea oso baikorra izan da lan merkatuari dagokionez ere. Guztira, 22.000 lanpostu garbi sortu ziren urteko batez bestean. Zenbateko horrek %2,3ko hazkundera adierazten du. Ekoizkortasun irabaziak %1,9aren inguruan ibili dira, hots, azken hamabost urteko batez besteko tasa baino hiru hamarren gehiago lortu dira 2006. urtean. Eraitza hori are deigarriagoa da kontuan hartzen badira Estatuan lortu diren ekoizkortasun irabazi apalak, puntu batera ez baitira iritsi (%0,8 urteko batez bestean). Alde batetik, lanpostu berriak eraikuntzan eta zerbitzuetan sortu dira, ekoizkortasun irabazi txikiak dituzten arloetan, baina beste aldetik industriak eraginkortasun maila garrantzitsuak lortu ditu, bere ekoizkortasun irabaziak (%5,4 urteko batez bestean) garbi uzten duen bezala.

Enplegua eta ekoizkortasuna uztartzeko modu hori bereziki onuragarria da EAEko ekonomia-erentzat. Lan eskua areagotzeko bidea nahiko mugatuta dago, langabezia tasa oso txikia delako eta lan merkatuan sartzen diren lagunen kopurua hutsala delako. Beraz, ekoizteko prozesuetan eraginkorragoa izatea (hau da, ekoizkortasun irabaziak areagotzea) erabakigarria izango da EAEko ekonomiak etorkizunean hobera egin ahal izateko.

Urte arteko aldakuntza tasak

	2005	2006	2005		2006			
			III	IV	I	II	III	IV
BPG erreala	3,9	4,2	4,0	4,3	4,4	4,2	4,2	4,1
Enplegua	2,1	2,3	2,2	2,3	2,2	2,3	2,5	2,1
Ekoizkortasun irabaziak	1,8	1,9	1,8	2,0	2,1	1,9	1,6	1,9
Langabezia tasa	5,7	4,1	5,0	4,9	5,1	4,2	3,6	3,4
Kontsumoko prezioen indizea	3,3	3,4	3,4	3,5	3,9	3,8	3,4	2,5

Iturria: Eustat eta INE.

Aurreko lerroaldeko ideiarri lotuta, langabezia tasa 2006ko amaieran %3,4ra murriztua zen, Eustatek argitaratzen duen BJA inkestaren arabera (INEren BAI inkestan %6,7an dago). Beherakada nabarmena izan da bi sexuetan, baina bereziki emakumeen artean. Une hauetan bi sexuen langabezia tasen arteko aldea ez da puntu batera iristen (%3,0 da gizonen tasa eta %3,9 emakumeena), zortzi urte lehenago bi sexuen arteko aldea hamabost puntukoa izan zen bitartean.

2006. urtean ere inflazioa izan da bilakaera okerra jaso duen aldagaietako bat. Hain zuzen ere, BPGren deflatorea %3,3ra iritsi zen eta kontsumoko prezioen batez besteko gehikuntza %3,4an kokatu, Europako Banku Zentralak ezarri zuen %2tik oso gora, beraz. Energiako prezioen bilakaerak, bereziki petrolioaren salneurriak, adierazle honen emaitza urtean zehar baldintzatu zuen, onerako eta txarrerako. Txarrerako, urteko lehen hilabeteetan inflazio tasa %4tik gora bultzatu zuelako, eta onerako, urteko azken hilabeteetan indize orokorra %2,6ra murrizten lagundu zuelako.

Hala eta guztiz ere, KPI indizeak urteko azken zatian izan duen bilakaeran badaude azpimarratu behar diren bi ezaugarri. Alde batetik, indize orokorra ez ezik azpiko inflazioa ere zenbait hamarrenetan gutxitu da, %2,4ean kokatu arte. Horrek garbi adierazten du energiaren garestitzea ez dela gainontzeko ekoizkinetara igaro. Beste aldetik, adierazi behar da Euroguneko herrialdeekiko inflazio aldea murriztu egin dela urtea aurrera joan ahala eta urtarrilean tarte hori 1,8 puntukoa izan bazen ere, urte amaieran 0,6 puntura gutxitu zen. Merkatu globalizatu batean lehiatzeko ahalmena gero eta lotuago dagoen berrikuntzara, diseinura, ekoizkinaren dibertsifikaziora, bezeroari ematen zaion arretara eta abarretara egon arren, oso garrantzitsua da norberaren salneurria lehiakideena baino askoz gehiago ez garestitzea. Horregatik, inflazio tarte murriztu izana albiste ona da.

2007. urteari begira, ekonomiaren aurreikuspenak egiten dituzten nazioarteko erakunde nagusiek munduko ekonomia zertxobait motelduko dela, bereziki garatutako herrialdeetan, adierazi dute. Izan ere, hazkunde erritmo apalagoak aurreikusten dira AEBetarako, Japoniarako eta Europar Batasunerako. Halaber, badaude munduko ekonomia kaltetu dezaketen zenbait arrisku, nahiz eta beroriek gertatzeko aukerak, adituen ustez, oso handiak ez izan. Arrisku horien artean, aipatu behar dira AEBetako higiezinaren merkatuan bizi diren zailtasunak, zenbait ekonomia eremutan dauden tentsio geopolitikoak, eskariko zein eskaintzako arrazoientatik inflazioan ezkutatuta dauden presioak, eta herrialde zenbaitek dituzten desoreka makroekonomikoak bat-batean zuzentzeko aukera.

Gehikuntza tasa apalagoko testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak urte honetarako egin dituen aurreikuspenek adierazten dute EAEko ekonomia %3,8 haziko dela, hots, 2006. urtean baino lau hamarren gutxiago. Hazkunde txikiago hori barne eskarian gauzatuko da, kanpo arloak berriro puntu erdiko ekarpen negatiboa egingo duelako. Barne eskaria osatzen duten hiru agregatu nagusiek (kontsumo pribatuak, kontsumo publikoak eta inbertsioak) bultzada txikiagoa emango diote BPGri. Interes tasen igoerak neurri handi batean justifikatzen du kontsumo pribatuarentzat eta inbertsioarentzat aurreikusten den hazkunde motelagoa. Eskaintzaren aldetik, eraikuntzaren eta industriaren jarduerak ia puntu bat apalduko dutela gaur eguneko gehikuntza erritmo bizia aurreikusten da, zerbitzuek oraingo tasari eutsiko dioten bitartean.

EAE-RAKO AURREIKUSPENEN LABURPENA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007				2008	
			I	II	III	IV	I	II
BPG erreala	4,2	3,8	4,0	3,7	3,7	3,8	3,7	3,5
BPGren deflatoarea	3,3	3,1	3,1	2,9	3,0	3,3	3,2	3,2
Enplegua	2,3	2,2	2,2	2,0	2,2	2,3	2,0	2,2
Langabezia tasa	4,1	4,2	4,0	4,2	4,3	4,4	4,5	4,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

Gainontzeko aldagaiei dagokienez, prezioen hazkundera 2006koa baino zertxobait arinagoa izango dela aurreikusten da, BPGren deflatoarea %3,1an kokatuko delarik; enpleguaren hazkundera %2,2ra iritsiko da eta ekoizkortasun irabaziak %1,5 gaituko du; eta langabezia tasak gaur eguneko maila apaletan jarraituko du.